

2006ko martxoaren 28an, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZI ETA ERDIETAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

- 1.- 2.006KO OTSAILAREN 21EKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
- 2.- ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.
- 3.-ZENBAIT LAN ETA IREKITZE BAIMEN ESKAERA ETA KONTSULTA URBANISTIKOAK ETA SEGREGAZIOAK.
- 4.- 2.005EKO LIKIDAZIOA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.
- 5.- 2.006KO URTARRILAREN 1EKO BIZTANLEEN UDAL ERROLDA ONARTZEA.
- 6.- ARAUEN BERRAZTERTZEAREN ONDORIOZ LIZENTZIEN ETETZEEN LUZAPENA ONARTZEA.
- 7.- TOLOSALDEKO UR HORNIDURA PROIEKTUAREN BARRUAN ADUNAKO ADARREAN HERRIKO TUBERIA ERANSTeko PROPOSAMENAREN AZTERKETA, BIDEZKOA BADA.
- 8.-2.006 ETA 2.007 URTEETARAKO ADMINISTRAZIO LOKALEKO LANGILEEN BALDINTZAK ERREGULATUKO DITUZTEN HITZARMENAK ONARTZEA.
- 9.- MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNAK AURKEZTURIKO BETERRI-AIZTONDO GERORA BIDEAN HITZARMENeko 2006. URTERAKO EGITARAUAREN PROPOSAMENA AZTERTZEA.
- 10.-ADUNAKO UDALERRIAN KUTXAZAIN BAT JARTZEKO KUTXAREKIN SINATU BEHARREKO HITZARMENA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.
- 11.-JAVIER SANTOSEK LANSARIEN IGOERAREN INGURUAN AURKEZTURIKO IDATZIAREN AZTERKETA.
- 12.- ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.
- 13.- ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.
- 14.-ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
- 15.-GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2006ko martxoak 23.

ALKATEA.

2.006KO MARTXOAK 28.

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA

Arantza Aburuza Alkorta.

ZINEGOTZIAK:

Bertaratuak:

Mikel Sarasola Asteasuain.

Iñaki Aristeta Gurrutxaga.

Antton Artola Ibarguren.

Javier Zabala Zabala.

Miren Aburuza Alkorta.

Bertaratu gabea:

Patxi Ormaetxea Otegi.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta seiko martxoaren hogeita zortziko hogeita bat ordu eta hamabost minutuak izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:

2.006KO OTSAILAREN 21EKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2006ko otsailaren 21eko aktaren berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotziek aho batez onartzen dute.

BIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinerazten du:

1.- Xabi eta Maite Oiartzun Jaun/Andereei Elordi Plaza 2ko etxeko eskailera orokorra eta ganbararen arteko tabikeko bloke batzuk aldatzeko baimena (36/2006 Alkatetza Ebazpena).

2.- M^a Jose Baltasar Alberro Andereari beraren jabetzakoak diren negutegien ondoan 2 estalpe egiteko baimena (37/2006 Alkatetza Ebazpena).

3.- Pablo Zumeta Zubelzu Jaunari Zumeta Bizitegia,S.L.-ren izenean gas propanoko lurrazpiko tanke baterako irekitze lizentzia (38/2006 Alkatetza Ebazpena).

4.- 2.006 urteari dagokion Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen errolda onartzea (39/2006 Alkatetza Ebazpena).

5.- Jesus Mari Gorostidi Jaunari Lardi baserriko bere lursailean egindako obren inguruko errekerimentua (40/2006 Alkatetza Ebazpena).

6.- Ramiro Dos Santos Jaunari bere bi semeekin Adunako Etxeberri baserriko sailetan dagoen karabana batean erroldatzeko eskaera ezestea (41/2006 Alkatetza Ebazpena).

7.- Jose Miguel Agirre Arregi Jaunari Lardi baserrian gela bat egiteko 2 leiho ateratzeko baimena (42/2006 Alkatetza Ebazpena).

8.- Jon Aizpurua Iraola Jaunari Pagoa baserriko lursailetan ardi batzuentzat txabola egiteko baimena (43/2006 Alkatetza Ebazpena).

9.- Maria Jose Baltasar Alberro Andereari Adunako ur saretik ura enpalmatzeko baimena (44/2006 Alkatetza Ebazpena).

10.- Aragi Bulegoak, S.L-k aurkezturiko jabe bakarreko konpentsazio proiektuari haserako onarpena ematea (45/2006 Alkatetza Ebazpena).

11.- Zubitxiki Industriguneko 14.zenbakian iharduera martxan jartzeko proiektua Udaletxean aurkezteko errekerimentua (46/2006 Alkatetza Ebazpena).

12.- Zubitxiki Industriguneko 10.zenbakian iharduera martxan jartzeko proiektua Udaletxean aurkezteko errekerimentua (47/2006 Alkatetza Ebazpena).

13.- Distribuciones Lopetegi, S.L-ri SS-5890-BK ibilgailuaren 2.006 urteko Trakzio Mekanikozko Ibilgailuei buruzko Zergaren zati proportzionala itzultzea (48/2006 Alkatetza Ebazpena).

14.- Transportes Hermanos Paino, S.L-k Uparan Industriguneko, 11.zenbakian egiten ari ziren iharduera bertan behera uzten dutenaren berri izanaz (49/2006 Alkatetza ebazpena).

15.- Eduardo Arruti Lopetegi Jaunari Construcciones Trati, S.L.-ren izenean Adunako H.I.B. 1.5-6 eremuan 16 etxebizitza, garaje eta trasteleku eraikitze eta urbanizazio obrak burutzeko baimena (50/2006 Alkatetza Ebazpena).

16.- 2.005eko aurrekontuaren likidazioa onartzea (51/2006 Alkatetza Ebazpena).

17.- Gregorio Lasa Etxezarreta Jaunak Ibaiondo Industriguneko 22 eta 23.zenbakietako enpresaren jabetza aldatzen denari buruz aurkezturiko idatziaren berri izanaz (52/2006 Alkatetza Ebazpena).

18.- Alvaro Cifredo Martín Jaunak Cave Bilbainos Logística España, S.L.-ren izenean Urtaki Industriguneko 42.zenbakian ordaintzen ari ziren ur-hornidura zerbitzuagatikoko tasari baja emateko aurkezturiko idatziaren berri izanaz (53/2006 Alkatetza Ebazpena).

19.- Miguel Arrospide Aburuza Jaunak tarteraturiko 92/06 ohiko prozeduran demandatu bezela pertsonatu eta agertzea (54/2006 Alkatetza Ebazpena).

20.- Miguel Arrospide Aburuza Jaunak tarteraturiko 76/06 ohiko prozeduran demandatu bezela pertsonatu eta agertzea (55/2006 Alkatetza Ebazpena).

21.- Juan Manuel Cuesta Gallego Jaunak Aldapa Automatismos, S.L.-ren izenean Adunako Zubitxiki Industriguneko 8.pabiloian elektrizitate tailerraren iharduerarako aurkezturiko espedienteari hasera ematea (56/2006 Alkatetza Ebazpena).

22.- Martin Esnaola Jaunak zenbait ibilgailuen exentzioa eskatuaz aurkezturiko eskaera ez onartzea (57/2006 Alkatetza Ebazpena).

HIRUGARREN PUNTUA:

ZENBAIT LAN ETA IREKITZE BAIMEN ESKAERA ETA KONTSULTA URBANISTIKOAK ETA SEGREGAZIOAK.

Ez dago eskaerarik.

LAUGARREN PUNTUA:**2.005EKO LIKIDAZIOA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen Udaleko 2005eko Aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak emandako eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT

Lehena.- 2005eko Udaleko Aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2005.-12-31n:	64.369,16	
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2005.-12-31n:	55.542,83	
Aurrekontuko zordunak: aurtengo ekitaldia		47.291,53
Aurrekontuko zordunak: itxitako ekitaldikoak	5.470,04	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	2.781,26	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2005-12-31n:	111.068,40	
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: aurtengo ekitaldikoak	84.643,34	
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: itxitako ekitaldikoak	2.436,00	
Sarreren aurrekontuko hartzekodunak:	0	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	23.989,06	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2-3):	8.843,59	
5.- Saldo kobragaitzak:	1.450,22	
6.- Diruzaintzako gerakin likidua (4-5):	7.393,37	
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:	0	

8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):	7.393,37
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-54.454,57
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	0
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	
12.-Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik: 33.994,76	
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):	-20.459,81
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	7.742,63
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	43.236,83
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):	50.979,46

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako legedian jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

BOSTGARREN PUNTUA:

2.006KO URTARRILAREN 1EKO BIZTANLEEN UDAL ERROLDA ONARTZEA.

Udalbatzak, aho batez, 2006ko urtarrilaren 1eko Biztanleen Udal Erroldaren zuzenketa 368 biztanletan onartzea erabaki du, Erakunde Lokaletako Populazio eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamenduko 82.artikuloan xedatutakoa betetzearren, jendeaurrean jartzen da hamabost egunetan, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita, interesatuek espedientea aztertu ahal izateko eta kasua balitz, egokiak deritzoten erreklamazioak aurkezteko.

SEIGARREN PUNTUA:
ARAUEN BERRAZTERTZEAREN ONDORIOZ LIZENTZIEN ETETZEEN LUZAPENA
ONARTZEA.

Espedientean ikus daitekeenez,

Udalbatzak, 2005eko martxoaren 1eko osoko bilkuran erabaki zuen Adunako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspen dokumentuari hasierako onespena ematea.

Horrela bada, egun horretatik hasi eta urtebeteko epean, automatikoki etenda geratzen dira lizentziak emateko prozedura guztiak, hala agintzen baitu planeamendu tresnen tramitazioari buruzko 16/1981 Errege Lege Dekretuaren 8. artikulua, Hirigintzako Planeamendu Erregelamenduaren 117. artikuluari eta hurrengoei dagokienez.

Urtebeteko epe hori bukatzeaz dago gaur egun; beraz, epea bete ondoren, beharrezkoa izango balitz lizentzien etendura luzatzea, luzapen hori berariaz adostu beharko litzateke. Edozein kasutan ere, etendura berri hori zortzi hilabetekoa izango litzateke gehienera.

Dena den, Udalak aldatu egin ditu hasierako onespena emandako dokumentu horretan jasotako funtsezko irizpide batzuk. Hori horrela, une honetan dokumentua eraberritzen ari da, ondoren berriz ere hasierako onspena eman eta jendaurrean ikusgai jartzeko. Kontuan hartuta horrek guztiak planeamendu orokorreko tresnaren tramitazioa atzeratu egingo duela, behar-beharrezkoa deritzogu lizentzien etendura epea ere luzatzea.

Kontuan hartu behar da, halaber, lizentzien etendura berariaz adostu behar dela, etendurak ukitu ditzakeen eremuak zehaztuz. Kasu honetan, lizentzien etendurak udalerrri osoan izango du eragina eta, etendura gehienez ere urtebetekoa izango da, aipatu artikuluan ezarritakoaren arabera.

Erabaki hori probintziako Aldizkari Ofizialean eta hedapenik handienetako egunkari batean eman behar da argitara. (Hirigintzako Planeamendu Erregelamendua, 117-2. art).

Adierazitako guztia aintzat harturik, Udalbatzak, aho batez, zera erabaki du.

1.- Adunako udal barrutiak hartzen duen eremu guztian lizentzien etendura URTEBETEZ luzatzea, Adunako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspen espedientea tramitazio bidean baitago.

2.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta hedapen handiko egunkari batean argitaratzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA:

TOLOSALDEKO UR HORNIDURA PROIEKTUAREN BARRUAN ADUNAKO ADARREAN HERRIKO TUBERIA ERANSTeko PROPOSAMENAREN AZTERKETA, BIDEZKOA BADA.

Gai honen inguruan hitzegin ondoren, Udalbatzak, aho batez, zera onartu du: bere garaian Gipuzkoako Foru Aldundikoarekin hitzegindakoaren arabera, Agamundo ondoko kasetatik hasi eta Adunako ur biltegiraino pasa behar duten ur hodiko lanak aprobetxatuaz, Adunako Udalarentzat ur biltegitik beherako ur banaketarako zanja berean beste hodi bat sartzea erabakitzen da. Eta aldi berean, Gipuzkoako Foru Aldundiko baldintza beretan lan hauek egitea eskatzen da.

ZORTZIGARREN PUNTUA:

2.006 ETA 2.007 URTEETARAKO ADMINISTRAZIO LOKALEKO LANGILEEN BALDINTZAK ERREGULATUKO DITUZTEN HITZARMENAK ONARTZEA.

Ikusirik martxoaren 30 eta 31an Udalhitz-i buruzko informazio ihardunaldiak izango ditugula eta ikusirik ihardunaldi hauetan Administrazio Lokaleko langileen baldintzak erregulatuko dituzten hitzarmenen berri emango dela, Udalbatzak, aho batez, zera erabaki du:

- 1.- Ihardunaldi hauek ospatu arte, aipaturiko hitzarmenak ez onartzea.
- 2.- Erretribuzioei dagokienez, 2.006ko urtarrilaren 1-etik aurrera, soldatak %4,6 igotzea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA:

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNAK AURKEZTURIKO BETERRI-AIZTONDO GERORA BIDEAN HITZARMENeko 2006. URTERAKO EGITARAUAREN PROPOSAMENA AZTERTZEA.

Aztertu ondoren Beterri-Aiztondo Gerora Bidean hitzarmenaren esparruan Larramendi Bazkunak 2006. urterako aurkeztu duen lan-egitaraua, Adunako Udaleko Udalbatzak, aho batez, ondokoa erabaki du:

- 1.- Manuel Larramendi Kultur Bazkunari 3.205,25 euroko (hiru mila berrehun eta bost euro eta hogeita bost zentimo) dirulaguntza ematea Beterri-Aiztondo Gerora Bidean hitzarmeneko 2006. urteko egitaraua osatzen duten eta azpian zehazten diren iharduerak garatu eta antolatu ahal

izateko, dirulaguntza hori udal aurrekontuko 1.0000.421.451.00.01 zenbakiko dirukontutik ordainduko zaielarik.

- Aiurri, Beterri-Aiztondoko aldizkaria: 1.870,97 €
- Saiakera laburren bilduma: 100€
- Beterriko Liburua literatur aipamena: 487,59€
- Euskal Herrian Barrena egitaraua: 240€
- Lekukotzak egitaraua: 51,75€
- Aiztondoko historia egitaraua: 454,94€

2.- Goian aipaturiko dirulaguntzaren %70a ordaintzea, BAGB hitzarmeneko zazpigarren hitzbaketan erabakitakoari jarraiki, erabakia hartzen den egunaren hurrengo berrogeita bost egunen barruan.

3.- Erabaki hau jakinaraztea Manuel Larremendi Kultur Bazkunari eta Andoain, Amasa-Villabona, Zizurkil, Asteasu eta Larraulgo Udalei.

BIGARRENA: AIURRI ALDIZKARIAN URTE OSORAKO PUBLIZITTAEA KONTRATATZEARI BURUZKO PROPOSAMENA.

Ikusirik Beterri-Aiztondo Gerora Bidean hitzarmenaren esparruan, Aiurri aldizkariari dagokionez Larramendi Bazkunak 2.006 urterako aurkeztu duen lan-egitaraua eta udal honi publizitatea argitaratzeko egin dion proposamena, Adunako Udaleko Udaltzarak, aho batez, ondorengo erabaki du:

1.- Manuel Larramendi Kultur Bazkunarekin 425,57 euro (LAUEHUN ETA HOGEITA BOST EURO ETA BERROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO) bitarteko publizitatea kontratatzea (BEZa barne) Aiurri aldizkarian, urte osoan zehar argitaratuko dena, Udalak erabaki ahala.

2.- Euskara Zerbitzua izango da Udaleko sail guztietako publizitate eskakizunak koordinatu eta ontzat emango dituen, ondoren dagokion saila harremanetan jarriko delarik Aiurri aldizkariako publizitate arduradunarekin.

3.- Publizitate hitzarmen horren ordaina publizitatea egin ahala Udalarari ordainagiria aurkeztuz kitatu beharko du Larramendi Bazkunak, beti ere aipatu dirukopuru agortu bitartean, ordainagiriarekin batera egindako publizitatearen aldakia aurkeztuz.

4.- Erabaki hau jakinaraztea Manuel Larramendi Kultur Bazkunari eta Andoain, Amasa-Villabona, Zizurkil, Asteasu eta Larraulgo Udalei.

HAMARGARREN PUNTUA:

ADUNAKO UDALERRIAN KUTXAZAIN BAT JARTZEKO KUTXAREKIN SINATU BEHARREKO HITZARMENA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Udalbatzak, aho batez, Adunako Udalerrian Udaletxea kokaturik dagoen eta orain arte Aguazilak erabiltzen duen lokalaren zati batean kutxazain bat jartzeko Kutxarekin sinatu beharreko hitzarmena onartzea erabaki du. Eta Alkateari hitzarmen hau sinatzeko ahalmena ematea aho batez onartzen da.

HAMAIKAGARREN PUNTUA:

JAVIER SANTOSEK LANSARIEN IGOERAREN INGURUAN AURKEZTURIKO IDATZIAREN AZTERKETA.

Javier Santos aparejadoreak 2.006ko urtarrilaren 1etik aurrera, bere hirigintz aholkularitza lanak IPCa kontuan izanik, %3,8an (ordua 44,85 € geratuko litzateke) igoko direla aipatzen duen idatzia aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, igoera hau onartzea erabaki du.

HAMABIGARREN PUNTUA:

ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.

1.- Xanti Alzuguren Jaunak, Nafarroa Oinez 2.006ko koordinatzaile gisa, 2.006ko urrian Beran ospatuko den Nafarroa Oinez festarako aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, 165 €-tako dirulaguntza ematea onartzen du.

2.- Agustin Vital Mediorotz Jaunak Kilometroak 2.006ko ekonomi taldearen izenean 2.006ko urriaren 1ean Oiartzunen ospatuko den Kilometroak festarako aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez dirulaguntzarik ez ematea erabaki du.

3.- Miguel Madariaga Barinaga Jaunak Euskadi Txirrindularitza Iraskundearen izenean aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, dirulaguntzarik ez ematea erabaki du.

4.- 18/98 eskubide zibil eta politikoen urraketa gehi poltsikoaren xahuketaren inguruan makro epaiketaren gastuak ordaintzeko aurkezturiko 20 €-tako bono laguntzak aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, 4 bono erostea erabaki du.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA: ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.

1.- Haurreskolako gestioa aurrera eramateko Aduna eta Zizurkilgo Udalen artean 2.006ko martxoaren 27an sinaturiko hitzarmenean oinarrituaz eta Zizurkilgo Udalak gastuei aurre egiteko aurkezturiko idatzia aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, 24.735,84 €-tako gastuak onartzea erabaki du.

2.- Adunako 6.sektoreko errepartzelazio proiektuaren aurka Daniel Barcosek tarteraturiko helegiteak sorturiko gastuei aurre egiteko Araudi, S.L.-k aurkezturiko 6.070,78 €-tako faktura aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, faktura hau onartzea erabaki du.

3.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak 2.006ko 1.hiruhilabeteko gastuei aurre egiteko aurkezturiko idatzia aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, idatzi hau onartzea eta Udalarri dagokion 6.959,59 €-tako kuota ordaintzea erabaki du.

HAMALAU GARREN PUNTUA: ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.

Alkateak azken Plenoa egin zenetik gertatu diren gai interesgarrien eta hartutako erabakien berri ematen du eta Udalbatza jakinaren gainean geratzen da.

Gai zerrendatik kanpo, honako gai hau erabaki da:

1.- Adunako Udala eta Txulobi Elkarteak Txulobi Elkartearen funtzionamendurako bi mila eta biko urtarilaren hamabostean sinaturiko kontratuan oinarrituaz eta konkretuki kontratuko bostgarren estipulazioan oinarrituaz, Udalbatzak, aho batez, zera erabaki du: “ Elkarte honetara sartu ahal izateko, sarrera kuota 150,25 eurotan (25.000 pezeta) ezartzen da....” aipatzen duen tokian, “ Elkarte honetara sartu ahal izateko, sarrera kuota 180,00 eurotan ezartzen da....”.

Beste Aztergairik gabe, hogeita hiru ordu eta hamar minutu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

